

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **366/2019 Erabakia, ekainaren 4koa. Onespena ematea mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzaren 2019rako deialdiari**

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaien mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzak arautzeko oinarriari eta laguntza lerro horren 2018rako deialdiari.

“Zaharrak” deritzen mahastiak funtsezkoak dira Arabako Errioxako mahastien ekoizpenean; izan ere, neurri handi batean Errioxa jatorrizko deituraren gainerakotik bereizten dira. Mahasti zahar horiek balio natural eta produktibo handiko nekazaritza sistemak dira, eta eskualdean harraskadetan oso bizirik egon den material genetikoaren gordelekua, gaitasun handia baitaukate baldintza natural eta klimatiko okerretara egokitzeko, horrek dakarren balio garrantzitsuarekin: Arabako etorkizuneko mahastiak mantendu eta garatzea erraztu eta bermatzea. Halaber, mahasti horiek, oro har, oso garrantzitsuak dira kalitate bereiziko ardoak egiteko orduan, landakoak, produktibitate gutxiak eta aniztasun handikoak direlako; ondorioz aukera ona dira eta eskualdearen denboran eta espazioan horiei eustearen alde egin behar da.

Horren guztiorren ondorioz, laguntza lerro bat garatu beharra dago mahasti zahar horiei eta horrelako mahastien laborantzari eusteko, Arabako Errioxako paisaia tradizionalaren eta nekazaritza sistema horien oinarritzko osagai baitira, eta eskualdean ohikoa izan denez, kalitate goren eta bereiziko produkzioari eutsi eta hura garatzeko.

Laguntza lerro hau “Arabako ardoak sustatzea” helburu estrategikoaren barnean dago, Foru Sektore Publikoak 2017-2019 aldirako duen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barnean (Diputatuen Kontseiluak abenduaren 29an 921/2016 Erabakiaren bitartez onetsi zuen eta Gobernu Kontseiluak abenduaren 29ko 821/2017 Erabaki bidez aldatu).

Halaber, 30/2018 Dekretuaren 7. artikulua, laguntza hauek izapidetzeko prozeduraren barruan, xedatzen du urtero deialdi bat onetsiko dela. Deialdian, laguntza lerro bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea adieraziko da, eta laguntzak emateko erabiliko diren kredituak zehaztuko dira.

Hortaz, mahasti zaharrak mantendu eta kontserbatzeko laguntza lerroari jarraipena eman behar zaionez, proposatzen da 2019rako deialdia onestea eta hari aurre egiteko behar besteko kreditua gordetzea. Horren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzaren 2019rako deialdiari, zehaztasun hauen arabera:

– Epea eta lekua: laguntza eskaerak aurkezteko epea 2019ko uztailaren 1etik 30era izango da, egun biak barne, eta Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan egingo da (Lapuebla de Labarca errepidea, zk.g. Guardia), betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua.

– Kreditu erreserba: 274.698,54 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontu 2019ra luzatuaren gastu aurrekontuko 40.1.04.44.00.770.00.01.1 “Mahasti zaharrak mantentzeko plana” izeneko partidaren kontura.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren % 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzagatik ere.

– Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2019rako deialdi honetan 4.000,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAO argitaratzea

Gasteiz, 2019ko ekainaren 4a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**